

Maria Jesus Aberasturi

Bi biajen artian harrapo dogu

Maria Jesus eta tartetxo horretan bere lanbidiari buruzko jardunalditxo hau eskiñi dosku; benetan atsegiña izan da. Holako jardunarekin biajerik luziena be motza izan leike!

- Noiz hasi ziñan lan hone-tan?

Taxisarekin? orain dala 10-11 bat urte, akordau be enaiz egi-tten, hamaika urte izango dira.

- Zer dala ta hasi ziñan?

Bueno, badakitzu, lehen nere gizona zan taxistia. Bastante urtian eguen taxista Oñatin eta kantsau egin zan eta kamioia erotia pentsau eben. Kamioiak lanian hasi zan eta oso gustora gaiñera eta esan eben "taxisakin zer egingo dogu?", "Ba, ni hasiko naiz" eta gizonak: "bai, zela hasi-ko zara zu? horrenbeste ume etxian izanda, zer dala pentsai-tten dozu hori?" eta nik "ba ikusi-ko dot, gaizki urteten baldin badau, gero pentsauko dogu zer egin". Eta halaxe hasi nintzan, Gasteizen karneta hartu eta aurrera.

- Aurretik bazeukan karnetik?

Bai, 15 urte edo gehixaguan; 18 izango dira karneta dakotela. Baiña taxisak eruateko espeziala etara bihar izaten da.

- Zure gizona taxista izan ez palitza, bide horretatik joko zebela uste dozu?

Eztakitt, igual ez, baiña zela etxian hori samur euki doten, pentsau barik, halaxe urten nontan eta horretan hasi nintzan; gustora nenbillen eta jarraitu egin eben. Eta kamioiak be, noizbait esan

ezkero: "kamioia eruango zeke?" Nik baietz uste dot, egittia izango litzake txarrena, kilometro bat-zuk egittia, bestela, nik kamioia be zuzen eruango neke.

- Hasieria zailla egin xatzun?

Lehenengotan bastante zailla, ze batzuentzat etzan normala andria paradan ikustia; beste batzuentzat gizon bateri lana kentzeia zan. Halako gauzak herri txikixetan, badakitzu, saillian saillian esaten dira. Baiña beste taxistekin be ondo eruaten nintzan eta, apurka apurka baiajak be hasi ziran.

- Baiña, zure umiak txikiñak ziranian, zela moldaitten ziñan?

Lehenengotan hainbeste lanik eneukanez, eguardi partian etxe-ra faten nintzan goizian goiz egindako bazkarixa neskati-la-mutikueiri emun eta atzera be paradara. Gaiñera ordurako neskatilliak baeukan zazpi urte eta askotan hartzen nontan erre-kauak telefonotik.

- Emakumia izatiagatik traba-rik izan dozu iñoiz?

Ez, trabarik ez...Herrixan bazi-ran mutil zaharrak eta pentsaiten ebeñak andria izatiagatik taxista lanetarako eta beste gauza askotarako be izango nintzala, baiña nik hasiera hasieratik gauzak garbi itxi nosten. Bestela, trabarik ez, baiña gauza kuriosorik bai.



ARREGUI Haltzariak

Euskadi, 5 - Sta. Marina, 4 - Kale Barria, 57
Tfnoak. 78 07 13 - 78 30 83 - OÑATI



Akordaitten naiz behin nere gizonaren billa etorri zala bat Galiziara biajia egiteko, baiña nere gizona kanpuan zan eta neuk eruango nebela esan noztan, eta orduan berak "hori ez ta andriak egiteko biajia" eta nik "biajiak be izena dakoi ala? Gizonak faten diran lekura andrak be fango gara ezta?" Bera ez oso konbentziuta, baiña bidian jarri giñan eta pozik asko geratu zan.

- Orduan biaje luzietan be ibiltten zara?

Bai, holakuak be egin izan ditud, Madrillera, Albazetera, Salamancara... trankil gaiñera, kotxian jasarri eta fan da fan. Baiña orain *eurotaxisarekin* hasi nintzanetik ezta kot halakotarako astirik, ze zazpi t'erdittan puntuan hasi behar naiz umiak hara eta hona, lehenengo Eskoriatzara, gero Oñatikuak hartu... Arratsaldian be, ordu jakin batian euron billa fan bihar izaten naiz.

- Eta nola sortu xatzun eurotaxisarena?

Aurretik DYako furgoneta bat ibiltten zan umiak herri batetik bestera eruaten, baiña furgoneta ha gutxi zala ta, mankomunidiak erabaki eben herri batek ardura hori hartzea taxi espezial

bat jarritta, eta eztaikit ba zergatik, Oñatiri tokau xakon. Eta Aiuntamentuak herriko taxistairi hots egin oskuen, lan hori eskiñiz. Nik hasieran ez notzan inportantzia haundirik emun, baiña gero gizonak eta beste taxistak konbentzitu ninduein: neretako lan polita zala, halako orduan bukatu eta etxeko lanak egiteko librau nintzala, umiak pazientzi bihar danez, ni emakumia izanda hobeto jirauko nintzala...

- Baiña horrekin bakarrik eztabiltz orain...

Ez, ez, mankomunidiak lan hori egiteagatik jornal bat ordainketan dost, baiña horrekin bakarrik bizimodua ataraterik eztago eta taxisaren zerbitzu publikoarekin jarraitetan dot. Dana dala, kotxia minusbali-duentzat gertatuta dauenez, bailadakuari erantzuteko obligaziñua dakot. Adibidez, Gatzagako bat nunbaitera eruan bihar baldin badot, bere herritik urtengo baneu moduan kobrau bihar xat, Oñatitik harainoko kilometruak kontau barik.

- Eruan-ekarrixaz aparte bestelako laguntzarik emun bihar izaten dostezu?

Ez, izatez nere lana hori besterik ezta. Orain, askotan tokau izan xat norbaittek esatia "nere etxian eztago inor lagun-

"Herri honetan danok ezauketan gara eta hemen eztago kapitaletako problemarik"

ketako eta lagunduko dostazu zuk klinikara?" eta zergatik ez, nik besotik hartu eta han eruaten dot. Gero igual medikua hasten da etxian ze pastilla hartu behar dauen neri esaten, familiakua naizelakuan, eta nik taxis-tia besterik enaizela eta esplika-ziñuak papelian jarteko esaten dostet. Hortara ohittuta nago lehendik be.

- Eta bestela, Oñati moduko herri baten nolako biajiak egin bihar izaten dozue?

Danerakuak dagoz, batzuk fijo samarrak, enpresetakuak adibidez, aireportutara be askotan faten gara. Hortik aparte, urjentziakuz

gehixenak; kontuan izan taxixa nehiko garestixa izanda, gure billa eztaozela, premiña larrixan ezpadagoz.

- Eta rentabilia da zuentzat?

Nik neuk eztot kontu zihatzik atara, premiña haundixan ez naguelako, baiña aspaldixan 6 taxista bagara Oñatin eta danok moldaitten gara. Gutxi gora behera danok dakogu gure bezerixia egindda. Hemen eztago kapitaleko konturik, ezto gu paradan txanda noiz tokauko zain egon biharrik.


- Paradia aittatu dozunez, zuretzat egonleku hori alda-ketiak bentajarik badako?

Neretatzat ez, lehen gegontzen lekua urteteko etzan hain erosua izango, baiña oraingo hau etxat bapebe gustaitten: umiak eskolan kastigaitten zittuain moduan jarri gaitue, bazter batian eta paretara begira. Izan be, hemendik ezta inor asko pasaitten; Txaketuenian, berrix, beste anbiñenteko bat egoten zan, jentehixago dabil atzera eta aurrera eta gure egonaldittan barriketarako aukera gehixago izaten geben.



"Emakumia izatiagatik eztot trabarik euki, baña gauza kuriosuak pasau izan xat"

Araba Etorbidea, 4
Tfnoa. 79 01 32
ARRASATE
9,00 - 13,00
16,00 - 20,00



Olakua, 14
Tfnoa. 71 60 00
OÑATI
16,00 - 20,00

ALEMANA • FRANTSESA • INGELESA

- MAILA GUZTIAK
- HAURRAK, GAZTEAK, HELDUAK
- GOIZ ETA ARRATSALDEZ

**HURBILDU ZAITEZ
GURE BULEGOETARA!**